# munduak guztiontzat beharko luke

*ARNASA ELKARTEA*

Patakoni izugarri gustatzen zaio hondartzako parkera gerturatu, itsasoa usaindu eta haurrak jolasean nola ibiltzen diren ikustea. Gaur ondoan eseri zaio Elena, Itxasoren ama.




A ZE HOTZERIA PANPOXA! KATARRO ETA GUZTI HORI DENA JAN BEHAR AL DUZU?
EZ DAUKAT KATARRORIK, NIK EZTULA BETI IZATEN DUT, FIBROSI KISTIKOA DAUKAT ETA.
GAIXOTASUN GENETIKOA DA, GEHIENBAT BIRIKIEI ETA DIGESTIO APARATUARI ERAGITEN DIONA.


ZER DA EZTULARENTZAT?
EZ JAN AURRETIK PILULA BATZUK HARTU BEHAR DITUT, BESTELA NIRE GORPUTZARI EZ DIO ONIK EGITEN JANDAKOAK.
ITXASOK EGUNEAN ZEHAR PILULA DESBERDIN DEZENTE HARTU BEHAR DITU.


BA NIK EZ DIOT GAIXOTASUNAREN ARRASTORIK SUMATZEN...
KANPOTIK EZ, BAINA BARRUAN BADAUZKA. GURE MUKIA URTSUA DA, BAINA FIBROSI KISTIKOA DUTENENA OSO LODIA DA, KOLA BATEN MODUKOA ETA MUKI HORREK ORGANO NAGUSIAK HARRAPATZEN DITU.
ETA BETI GABILTZA MUKIAK ASKATU NAHIAN.
ETA NOLA ASKATZEN DIRA MUKIAK?
EGUNEAN PARE BAT ALDIZ FISIOTERAPIA SAIOAK EGITEN DITUGU.
UDAN ITSASOAN BAINATZEN GARA, OSO LAGUNGARRIA DA ETA.
KIROLA EGITEN DUGU, MUKIAK ASKATZEN LAGUNTZEKO.
OHE ELASTIKO HORIETAN SALTOKA IBILTZEA ERE OSO LAGUNGARRIA GERTA DAITEKE.
ETA, HORREZ GAIN, BOTIKA MORDOA HARTU BEHAR DUGU EGUNERO.










arnasa
Asociación Guipuzcoana de Fibrosis Quística | Gipuzkoako Fribrosi Kistikoaren Elkartea

Arnasa Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkartea da. Bertan elkartzen dira gaixotasuna dutenak eta beren senideak

Gaixotasun arraroa da, eta ezezaguna oso. Ezagutzera ematea da elkartearen helburuetako bat



Gaixo daudenen egunerokoa ez da erraza, eta hori samurtzeko bideak jarri nahi ditu elkarteak.



Bere helburu nagusietako bat ikastoletan egunero fisioterapia saioak izatea da.



**Arnasa**
**Gipuzkoako Fibrosi Kistiko Elkartea**
**Eguia 34 / 20012 Donostia**
**652705365 / fqgipuzkoa@gmail.com**